



"TXANPONAREN BESTE ALDEAK" SAILARI AGURRA

Ez da txanponaren azken aldea



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Orrialde batzuk lehenago irakurri duzu "Txanponaren beste aldeak" saileko azken artikulua. Ez esan saltatu egin duzunik, irakurle, leitu zenuen, ezta?

Marka da gero, nik neure buruari agur esatea. Lander Arretxeak eta biok alternatiba sozioekonomikoen inguruan hogeirekurekin osatu dugun atala bukatu da. Baina tira, dramatikoegi jarri aurretik, agurra baino gehiago fase aldatuta deituko diogu.

Heldu genion gaiari 2014an "Prekarietatearen aurpegiak" sailarekin lehen-dabizi. Bizipen pertsonal eta zehatzetatik errealtate prekarioak ukitzen dituen ertzak ikusaraztea izan genuen helburu. "Txanponaren beste aldeak" sailak hartu zion testigua 2015ean, eta honekin ekonomia eredu tradizionalen izkin egin nahian eta modu demokratikoago, justuago, parekideago eta jasangarriagoetan funtzionatzen duten enpresa, elkarre eta programak plazaratu ditugu.

Eta bagoaz aurrera. "Txanponaren beste aldeak" atala urtebeteko ibilbidearen ostean amaitutzat ematen dugu, baina ez da txanponaren azken aldea, asko dago oraindik egin eta argitaratzeko, eta gaia ARGIA geratzeko dator. Maiztasun eta sail ez hain definituan, baina modu sakonagoan prekarietateak, sozioekonomiak eta alternatibek beren baitan biltzen dituzten gaiak lantzen jarraitzeko asmoa daukagu. Erreportaje edo elkarrizketak moduan, eredu zehatzak batzuetan eta gogoeta zabalagoak besteetan paperera ekarri.

Etxeko sofako erosotasunetik ezer gutxi aldatuko dugu, baina krisiak eta ezegonkortzeak ezer onik badu mugimendua da. Geurea geuk egiteko garaia da, behetik eta txikitik; eta ARGIA mugimendu horiei ahotsa ematen jarraitu nahi du. Sinetsita baikaude eraldaketa norberak beretik emandako urrats txikietatik etorriko dela. ■

"Lehen militantziaz irakurtzen nuen. Orain duen kalitateagatik. Irakurtzea merezi du"

Antxon,
ARGIAkoa

Donostiaren 2016 ertzak bloga jarri dugu martxan

Europako Kultur Hiriburutzarekin lotuta, ehunka ekitaldi kultural antolatzen ari dira hirian. Baina Donostian beste hainbat gauza ere ari dira gertatzen, zuzenean edo zeharka 2016ko ebentorekin harremana dutenak. Nola hartu dute kultur hiriburua herri mugimenduek? Nola jokatzeko ari dira alderdi politikoak? Zer harreman du hiriburutzak Donostian martxan diren proiektu urbanistikoekin?

Gertakariari angelu ugariatik begiratzeko plataforma izan nahi du *Donostiaren 2016 Ertzak* blogak. Kritikotasunez landutako hiriburutzari buruzko informazio, iritzi eta analisisa bilatzen badituzu, hau da zure lekua.

Joseba Larratxeren azalari *biba ta txaluak*



Gorka Salces
@gorkasalces

Azaltzarra! @joseviskyren diseinuak ondo mereziko luke leku bat El Portadistan
elportadista.com

Malcolm IXa
@malcolm9x

@boligorria Ni be flipauta gelditu nintzen ikusi nuenean, oso ona da. Eta Astrakoa ere oso polita. :) @josevisky @orodil @argia

Oiala Rodil
@orodil

Hai portadas q o din todo e que merecen ser editadas en gran formato. Parabéns á pessoa responsável de deseño @argia